



PDF irisgarria




Irakurketa Errazean

## Hiru Gurutzeen Gaineko

## Hilobiaren Memoriala

Hiru Gurutzeen Gaineko Hilobiaren Memoriala  
Oltza Zendea dago, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian  
Oltza Zendea non dagoen ikus dezakezu.

1936. urteko Estatu Kolpetik aurrera frankistek

preso asko kartzeletatik ateratzen zituzten  
eta Nafarroako leku ezberdinetara eramaten zituzten  
bertan hil eta lurperatzeko.

Frankistek preso asko  
Oltza Zendea eramaten zituzten  
bertan hiltzeko.  
Bertara eramaten zituzten  
Oltza Iruñeako kartzelatik gertu zegoelako.

Orain arte 9 hobi aurkitu dituzte.

Frankistek bertan

73 pertsona baino gehiago lurperatu zituzten.

Pertsona hauek

ondorengo herrietakoak ziren:

- Berbintzana
- Burlata
- Caparroso
- Larraga
- Melida
- Obanos
- Ondarroa, Gipuzkoan dagoela
- Iruñea
- Uharte Arakil
- Atarrabia

Zenbait desobiratze goiztiar egin eta gero eta azken urteetan egindako desobiratzeak eta gero osotara 39 pertsonen gorpuzkiak aurkitu dituzte.

Oltza Zendeako Udalak eta Zurbau taldeak hobi bakoitzean seinaleak, monolito bat, plaka bat eta QR kode bat jarri zituzten bertan gertatu zena jakin dezagun eta hil zituzten pertsonak ahaztu ez ditzagun.

Gorpuzki gehien aurkitu zituzten hobian memoriaren parke bat sortu zuten ere. Hobi hau Hiru Gurutzeen Gaineko Hilobia da.

Hemen Hiru Gurutzeen Gaineko Hilobian dagoen  
monolitoaren argazkia ikus dezakezu:



Hemen Hiru Gurutze Gaineko Hilobiaren  
argazkia ikus dezakezu:

